

2019eko ekainaren 18an , UDALBATZA ERATZEKO EGINDAKO BILKURAREN AKTA.

Udal Korporazio berria eratzeko, arratsaldeko 19tan zinegotzi hautatu hauek bildu dira Batzorde aretoan:

Nekane Arrizabalaga Manterola

Arkaitz Iruretagoiena Lertxundi

Iñigo Etxabe Azkue

Miriam Sarasola Eizmendi

Estibaliz Lizarreta Merino

Ahara Zuloaga Mintegui

Iñaki Telleria Astigarraga

Aitor Arregi Eizagirre

Hodeiza Sallen Molinero

Gontzal Alday Salaverria, eta

Irati Eizagirre Aguirre

Idazkari-Kontuhartzailea: Xabier Osa

5/1985 Lege Organikoak bere 195. artikuluan jasotzen duena betez Udalbatza osatzen da hautatuak izan diren zinegotziekin .Egunarena ez da bete hala adostu zutelako 2 taldeen ordezkariak, Telleriak eta Arrizabalagak.

Zinegotzi guzti horien kredentzialak konprobatu eta ondare-ondasunen aitorten dokumentuak zabaltzen dizkie Idazkariak, zinegotziek bete eta gero Interes Erregistroan gorde daitezten.

Ondoren, Idazkariak Arkeo-Aktaren berri eman du, Kajako egoera jasotzen duena , bankuz banku udalak dituen kontuen saldoen berri ematen duen agiria zinegotzi guztiei zabalduz.

Iñaki Telleriak eta Miriam Sarasolak osatzen dute Adin Mahaia, zaharrena eta gazteena direlako. Ondoren Alkatearen aukeraketari ekiten zaio, Idazkariak talde bakoitzaren hautagaien izenak eskatu eta EAJren aldetik Nekane Arrizabalaga eta, BILDUren aldetik Iñaki Telleria aurkezten dira.

Bozkatu eta Nekane 6 botu lortzen ditu eta Telleriak, berriz, 5 botu. Beraz 5/1985 Lege Organikoak bere 196 artikuluan jasotzen duen moduan Nekane Arrizabalaga izendatzen da Alkate , berak jaso baitu botuen gehiengo absolutua.

Nekane karguaren jabetza hartu du, Alkate karguaren zereginak leialtasunez beteko dituela aginduz .
Adierazi du, baita ere, zinegotzi berriak datoztela eta horrek freskotasuna emango diola korporazioari.

Aitor Arregik, hitza hartu eta eskuzabaltasuna eta lanerako prestotasuna azpimarratu nahi izan ditu. Eta
Gontzal Aldayk, berriz, benetako lankidetzarako jarrera.

Korporazioa eratuta geratu da eta bilkura 19,15etan bukatu da.

Eta gertatutakoaren berri jaso asmoz akta hau ematen dut, Idazkaria naizen honek 2019eko ekainaren
18an.

IDAZKARI -KONTUHARTZAILEA